MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA



Info+

MIGUEL ALTUNA LANBIDE HEZIKETA

Erdi eta Goi mailako heziketa zikloen eta espezializazio berritzaileen informazioa jaso nahi izanez gero, 943899270 telefonora deitu, info@maltuna.eus helbidera idatzi edo www.maltuna.eus webgunea kontsultatu

Miguel Altuna, **pertsonekin** lanean teknologia aurreratuenak erabiliz

FABRIKAZIO AUTOMATIZATUAN EUROPA ETA ESTATU MAILAN BIKAINTASUN ZENTRO IZENDATU BERRI DUTE, BERGARAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE HAU, AITORTZA HORI LORTU DUEN EUSKADIKO LEHENA

Forjaketa Prozesuen Diseinua eta Ekoizpena, Fabrikazio Adimenduna, Adimen Artifiziala eta Big Data espezializazioak eskaintzen dituen Gipuzkoako ikastetxe bakarra da Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketako zentroa. Ikasturte bakar batean espezializatzeko eta gaur egungo lan merkatuaren behar berriei erantzuteko aukera paregabea eskaintzen du. Goi mailako zikloko tituludunek izango dute espezializazio horiek ikasteko aukera eta gertuko enpresetan datuetan eta adimen artifizialean oinarritutako prozesuak ezarri edo integratzeko aukera zabalduko zaie, enpresen eraldaketa digitalerako erreferentzia izateko aukerarekin batera.

Arlo teknikotik haratago, administraritza arloan ere, urte bakarrean Zuzendaritzari Laguntza goi mailako titulua eskaintzen du Administrazio eta Finantzak goi mailako zikloko tituludunentzat.

Pertsonak erdigunean eta prestakuntza praktikoa

Espezializazioak alde batera utzita, eta Miguel Altuna Lanbide Heziketaren nortasunari erreparatuz gero, pertsonak prestakuntzaren ardatz nagusi direla ikusi dezakegu. Zeharkako gaitasunak eskuratzea, teknologia, garapen iraunkorra eta nazioartekotzea dira, besteak beste, prestakuntza zentro honen ardatz nagusiak.

Miguel Altuna ikastetxeak pertsonen aldeko apustua egin du, prestakuntza osoa oinarri hartuta. Horregatik, ikaskuntza ez da gaitasun teknikoetan soilik oinarritzen, baizik eta zeharkako ikuspegia ematen du. Bere lan-ildoa prestakuntza praktikoan oinarritzen da, eta horregatik, enpresen zeregina ere oso garrantzitsua da, arreta eta baliabideak eskaintzen dizkie, bai bere premiei erantzuteko eta baita haiekin batera egiten diren berrikuntza-proiektuetan ere.

Industria mailan, punta-puntakoak diren baliabide teknologikoak ere garrantzitsuak dira, eta horrek, hain zuzen ere, ahalbidetzen du ikasleek laneratzean jasan dezaketen arrakala teknologikoa murriztea. Garapen iraunkorraren aldeko apustua ere egiten du, bai ikastetxeak hartzen dituen erabakietan eta baita planifikatzen dituen erronka eta jardueretan ere. Eta, nola ez, Miguel Altunak nazioartekotzearen alde egiten du, bai ikasleen kasuan, bai irakasleen kasuan ere, horren erakusgarri da nazioarteko enpresekin lankidetzan egindako proiektuetan parte hartzea, besteak beste.

Abantailak: enpresengandik hurbil eta gizarteari irekita

Industriatik ahalik eta hurbilen, ahalik eta eszenatoki errealenetan ikastea da Miguel Altuna zentroaren abantailetako bat. Horren ondorio dira ekipamendu eta tailer erdi industrialak, laningurune oso digitalizatuak, *Learning Factories* bezalako metodologia aktiboak eta zeharkako konpetentzien indartzea. Irakasleak eta ikastetxeko zuzendaritza arduratzen dira eskualdeko benetako beharrak ezagutzeaz eta aldaketa-palanka gisa jarduteaz, prestakuntza egokituz eta bizitzan zehar pertsonen birkualifikazioa bultzatuz (*reskilling* eta *upskilling*).

Gaur egun, 300 enpresa baino gehiagok dute konfiantza Miguel Altunarengan, bai prestakuntza DUALean, bai tituludunen lan-poltsan. Horregatik guztiagatik, gizarteari irekita dagoen zentrotzat hartzen da, eta hainbat forotan parte hartzen du, eskualdekoak, nazio mailakoak zein nazioartekoak. Foro horietan parte hartzen du, eta ikasi egiten du, ikasleei ezagutzak transferitzeko, eta, ondoren, zirkulua ixten du, etorkizuneko erronkei begira aurrera egiteko, oraina ardatz hartuta eta iragana ahaztu gabe.



Miguel Altuna ikastetxean 4.0 industriarekin lotutako kontzeptuak eta teknologiak lantzen dituzte eta horren erakusle dira bere punta-puntako instalazioak. *Miguel Altuna Lanbide Heziketa*

Komunikazioa eta teknologiak

Miguel Altunan ingurune erabat euskaldunean lan egiten da, nahiz eta ziklo batzuk oraindik formatu elebidunean ematen diren. Eta mundu globalizatuari erantzuteko, ingelesak paper garrantzitsua betetzen du hezkuntza-prozesuan; horregatik, ingelesezko moduluak dituzten zikloak eskaintzen dituzte, eta arratsaldez, errefortzu- eskolak, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat. Frantsesa ere sartzen dute Zuzendaritzari Laguntzeko zikloko 2. mailan.

Teknologia da abiadura handian aurrera egiten ari diren faktoreetako bat. Bergarako zentroan badakite hori, eta, beraz, prestakuntza-eskaintza 4.0 industriarekin lotutako kontzeptuetara egokitzeaz gain, teknologia horiek erakundean txertatzen ari dira. Aldaketa horiek agerikoak dira espazio analitiko eta sortzaileetan, espazio exekutiboetan eta baita heziketa-zikloetako tailerretan ere. ■ N.G.